

## BALIO PROPOSAMENA

Gure ideia, animalien gorotzak energia bihurtzean datza. Energia sortzeko produktu berritzailea eta merkatuan daudenekin konparatuta nahiko desberdina da; materia hau ez da jada merkaturatutako lehengai beretatik sortzen. Esaterako, hamaika dira energia iturri berriztagarriak baina bat ere ez gorotzak oinarri dituena.

M&MIC (Mierd Machine International Corporation), hondakin organikoetatik energia lortzen duen enpresa, beste energia ekoizleetatik desberdintzen dituen hainbat ezaugarri ditu. Alde batetik, bertako produktua da. Energia sortzeko bertako nekazari eta abeltzainek tratatzen dituzten animaliez baliatuko gara. Animalia horiek, ez dituzte tratamendu bereziak jaso eta bertan hazitako ganadua da. Energia bertan ekoiztutakoa da eta ez dago kanpo zergak (inportazio zergak) ordaindu beharrik. Gainera, garraiatzeak sortzen duen kutsapena ekiditen du.

Gure inguruneko energiak; lurrean dauden energia desberdinak ustiatzetik sortzen dira; gurea, aldiz, egunero birsortzen den lehengaia da. Aldi berean, gorotzetatik energia ateratzeko prozesuan ongarri likidoa ere sortzen da. Bigarren mailako produktu moduan salduko duguna, edonork erosi dezan.

